



Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Eguna. 2017 Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Elkarteko alkateen adierazpena

Hiri hezitzaile izateko eskubidearekin dugun konpromiso irmoa adierazten dugu, pertsona guztien hezkuntzarako oinarrizko eskubidearen hedapena eta oinarrizko beste eskubide batzuk gauzatzeko bidea dela uste baitugu. Gure ustez, pertsonen eta elkarteen giza garapenerako eta garapen sozial eta ekonomikorako bultzatzailea da **Hezkuntzarako Eskubidea**; eta, bestalde, garapen jasangarria, herritar aktiboak eta bake iraunkorra lortzeko funtsezko elementu ere bada.

Tokiko gobernu garen heinean, hezkuntzarekiko dugun konpromisoa onartzen dugu; hezkuntzak inklusiboa eta kalitatezkoa izan behar du, bizitza osoa hartu behar du, eta inolako bazterketarik gabe eta ikastetxeek eta familiek betetzen duten zeregin garrantzitsua sendotuz gauzatu behar da eskubide hori.

Halaber, liburutegiek, museoez, kulturaguneek, osasun-etxeek, kirol-zentroek, udal-zerbitzuek, elkarteek, enpresa-ehunak, komunikabideek eta abarrek hezkuntza-proposamen berritzaileak eskaintzen dituzte esparru ez-formal eta informaletik, eta, horien bidez, hezkuntza formala osatu eta aberastu behar da.

Hezkuntzak gizartea aldatzeko duen ahalmen handian sinesten dugu, eta, hortaz, eragile horiek guztiek hiri-eredu hori eraikitzeko garaian betetzen duten hezkuntza-zeregin baliotsua aitortzen eta babesten dugu. Bide horretatik, halaber, hezkuntzaren esparruan paradigma-aldaketa bat bultzatzen ari gara.

Alde horretatik, tokiko gobernutik gonbita egin nahi diegu hezkuntza-komunitateari, elkarte-ehunari eta, oro har, gizarte zibilari, beren ahaleginak batu ditzaten eta, hala, **Hiri Hezitzaileerako eskubidea** gauza dadin, honako ardatz hauekin: inklusioa eta aukera-berdintasuna, justizia soziala, zuzentasuna eta aniztasuna; indarkeria orotatik aske izango den hiri bat nahi dugu, parte-hartzean oinarritutako demokrazia, kultura desberdinen arteko elkarbizitza, belaunaldien arteko solasa, enpatia, lankidetzeta eta abar sustatuko dituen. Asmo horrek gure ibilbide-orrian jasotako printzipioei erantzuten die, Hiri Hezitzaileen Kartan jasotakoei, hain zuzen.

Hiri-espazioa espazio hezitzaile bihurtu nahi badugu, proiektu partekatu horren inguruan hezkuntza-eragileen tokiko sare handi bat eratzea lortu behar dugu; espazio horretan, ezagupenak eta jakintzak eskuratzeko bidea errazteaz gain, balioak eta jarrerak transmitituko dira, pertsonak beren gaitasunak garatzeko aukera izan dezaten eta beren elkarteen garapenean eragile aktibo bihurtu daitezten.

Arduradun politiko garen heinean, elkartzeko, elkarrizketak garatzeko, gogoeta egiteko eta erabakiak hartzeko guneak sortzeko konpromisoa hartzen dugu, eta gure gizartea osatzen duten kultura eta gizarte-talde guztiek hartu behar dute parte gune horietan, gure udalerriek aurre egin behar dieten erronka ugariari arrakastaz erantzun ahal izateko.

**Hiri Hezitzailearen
Nazioarteko Eguna**
#EducatingCityDay
2017ko azaroaren 30a
Hiri Hezitzaileerako Eskubidea

